

JEAN ETCHEPAREREN BESTE HERIOTZA-KANTORE BI

1. SARRERA

Aldizkari honetan bertan Jean Etchepareren lau euskarazko kantu eman genituen aspalditxo (ikus bedi “Jean Etchepareren cantu dolorosac” artikulua, *Karmel* 2000-2, 35-54 or.). Nafarroa Behereko Donapaleuko Jean Etchepare idazlearen berri laburra ere eman genuen lan hartan. Ezagutzen ditugun Jean Etchepareren kantak narratiboak dira. Kanta narratibo hauek, gure idazlearen kasuan, odoltsuak dira, eta gertaera lazgarriak deskribatzen dituzte. Kantu narratibo horiek euskaraz “balada arruntak” bataiatu zituzten *Euskal baladak* liburuko egileek. Tankera horietako kantu narratiboei gazteleraz *romances vulgares* eta *romances de ciego* deitu ohi zaie. Frantsesez, gehienetan *complainte* bezala ezagutzen ditugu. Garai bateko bertsolariek tankera honetako kantak ere atera ohi zituzten bertsopaperetan. Pierre Topet “Etxahunek”, esaterako, tankera honetako kantu bat baino gehiago moldatu zituen. Bi aipatzekotan “Complainte Heguilus (1848)” eta “Amodio gati (1854)”.¹

Kantu narratibo horien gaineko erreferentzia liburu bat Julio Caro Barojak idatzi zuen: *Ensayo sobre la literatura de cordel*,

¹ Ikus bedi Jean Haritschelhar “L’oeuvre poétique de Pierre Topet-Etchahun” in *Euskera* 1969-1970, 624-649 or.

Rev. de Occidente Madrile 1969. Era honetako kantuak Euskal Herriko mugalde bietan *kantu berriak* bezala ezagutzen ziren. Nafarroa Behereko euskaraz ere “kantu berriak” izendatzen zirelako froga guk transkribatuko dugun pleguaren izenburuan bertan dator. Kantu berri hauek Euskal Herriko sortaldean (batez ere Nafarroa behereko sortaldetik Zuberoarantz, guk uste dugunez) *khantore berriak* edo *khantoreño berriak* izan zitezkeen².

Oraingo lantxo honetan beste bi kantu aldatuko ditugu. Bi kantu horiek plegu berean aurkitzen dira. Pleguaren izenburua hauxe da: *Cantu Berriac hamalau Briganten Eta Hama-Çaspi Assassinamenduen Gainian emanac*.

Bi kantu hauetan heriotza lazgarriak xehero deskribatuko ditu Jean Etcheparek. Heriotza horiek kontatzen zituzten pleguak, dirudienez, arrakasta handikoak ziren. Paper handian inprimatzen ziren eta euskaraz eta frantsesez kontatzen ziren gertaerak. Heriotzak urrutikoak ziren askotan. Jean Etchepareren kasuan, heriotza odoltsu guztiak urrutikoak dira. Gure oraingo lan honetakoak Filipinetakoak eta Marseilakoak dira.

2. BERTSO-PLEGUAREN EZAUGARRIAK

Jean Etchepareren bi kantu hauek ez datoz bertsopaper soil batean. Bertsopaperak, denok dakigunez, orri soilak izan ohi ziren, plama bakar batean bertso-sail bat edo bi zekartzatenak. Guk orain transkribatuko dugun pleguak lau orrialde handi ditu. Lehen eta hirugarren plama edo orrialdeetan euskarazko bertso-sailak datoz eta bigarren-laugarrenetan frantsesez. Hirugarren orrialdean frantsesezko azalpena dator, hitz lauz eta laugarrenean hitz lauz zein bertsoz. Bertso-plegu honen datarik ez dugu, ez baitator inprimatze-datarik. Uste izatekoa da XIX. mende bukaerakoa dela Jean Etchepareren gehienak bezalaxe.

² Pierre Topet-Etchahun-en kasuan *khantore berria* agertzen da garbiki, “Complainte Heguilus delakoan”.

Gure bertso-pleguaren deskripzioa egiteko Jon Bilbao bibliografoagana jo dugu eta hona hemen gure bertso-pleguaren ezaugarriak:

Cour d'Assises de San Modina (Îles Philippines). Briganten yaureguia. Cantu berriac hamalau briganten eta hamaçaspi assassinamenduen gainian emanac [15 estrofas]. Dax: Imp. Nouvelle, [s.d.] (2 h., 36 cms.). (Contiene además: a la vuelta: *Complainte sur le rapt de 18 jeunes filles* [5 estrofas en francés]. Hoja 2: Etchepare, J.: *Marseillan içanden assassinamendu baten gainian. Cantu berriac* [15 estrofas]. A la vuelta: *Une femme coupée en morceaux à Marseille* [10 estrofas en francés].

Euskarazko bi kantuek sinadura dute: Jean Etchepare. Fran-tsesezko testu eta kantu narratiboez ez dute sinadurarik. Ohar-garria da pleguaren tamaina handia dela 348 zentimetro luzera eta 253 zentimetro zabalera. Plegua zabaltzen badugu, egunka-ri arrunt baten lehen plama baino askoz handiagoa da. Jon Bilbaok bakarrik luzeraren berri ematen du 36 cms eta gure alea apurren bat txikiagoa da.

Interesgarria da era berean pleguaren bigarren plamaren bukaeran datorren oharra: *Parisen laü urtheko baiür bat içan da berrogoi eta hirur pusketan eçarriric. Courier bat assassina-turic. Emanen dugu heyen cantiac, cembeit egunen burian, Ascainecoac ere.*

Plegu horretan bertan, beraz, gerora etorriko diren plegu berrien berri ere ematen da.

3. LEHEN PLAMAN, LEHEN KANTUA: HAMALAU BRIGANTEN ASASINAMENDUEN GAINEAN EMANAK

Lehen kantu hau bi modutara emango dugu, bertso-pleguan dagoen bezala eta gaurko grafiara aldaturik. Lehentasuna gaurko grafian transkribatzeari emango diogu eta lau lerrotan toles-tuko dugu; lau hauen azpian jatorrizko dokumentuan ager-tzen den bezalaxe emango dugu jarraian idatzirik baina lau le-rrero nagusiak markaturik.

Lehen bertso-sail honek hamabost ahapaldi ditu. Hamabost ahapaldi hauek bi zutabetan ikusten ditugu bertso-pleguan. Lehen zutabeaz zazpi ahapaldi datoz eta bigarreanean zortzi. Bigarren zutabearen bukaera bertso jartzailearen izenak ematen du Jean Etchepare. Bertso hauen buruan kantatzeko airea dator. Aire hori, jakina, kanta doloros ezagun bat izango da gehienetan. Gure bertso-sailaren airea: *Nabi gabe ainbitz da mundian guerthatcen*. Hona, beraz, bertso-saila:

1

Huna kantu berriak aire zaharrian,
deklaratzeko hasten niz, Heskual Herrian.
San Modina deitzen den hiri ederrian,
hamalau kriminelaren suieten gainian.

I-Huna cantu berriak aire zaharrian/ Declaratzeko hasten niz, Heskual herrian/ San-Modina deitzen den hiri ederrian/ Hamalau kriminelaren suieten gainian.

2

Itsasoz bertzaldian San Modin hiria,
Filipineko isla da izendatia.
Brigant banda handi bat han zen agertia,
oihan baten erdian zuten jauregia.

Itzazoz bertzaldian San-Modin hiria/ Filipineko isla da izendatia/ Brigant banda handi bat hantzen agertia/ Oihan baten erdian zuten jauregia.

3

Jaunak, orai nahi dut mundia argitu,
krimina nahi duenak ongi konprenitu.
Hamazazpi neskatxa dira destruitu,
hemezortzigarrena baita konserbatu.

Jaunak orai nahi dut mundia argitu/ Crimina nahi duenak ongi konprenitu/ Hamazazpi Neskatxa dira destruitu/ Hemezortzigarrena baita konserbatu.

4

Hirur urthez faltatu andere gaztiak
Jose Pozolek ditu hatzeman guziak.
Tratamendu krudelak errezebitiak.
Zer miserikordiak galdurik biziak!

*Hirur urthez faltatu Andere gastiac/ Jose-Pozzolec ditu hatceman guciac/ Tratamendu
crudelac errecebitiac/ Cer misericordiac galduric biciac!*

5

Jose Pozolek zuen kuraie handia,
oihanaren erdian brigant-jauregia.
Hartan hatzeman dute bizi anderia,
bertze zonbaitek zuten han galdu bizia.

*Jose-Pozzolec çuen kuraye handia/ Oibanaren erdian brigant yaureguia/ Hartan hatce-
man dute bici Anderia/ Bertce çombaitec çuten han galdu bicia.*

6

Jose Pozel juan zen lasterrez hirira,
San Modinako jujer pharte emaitera.
Tropa igor dezaten hen arrestatzera,
horrec gidatu ditu briganten leizera.

*Jose-Pozzel Yuantcen lasterrez hirira/ San-Modinaco yujer pharte emaitera/ Tropa igor-
deçaten hen arrestatzera/ Horrec gidatu ditu briganten, leicera.*

7

Pedro Bendarez eta Stefano Diaz
xefa nausiak ziren briganten kargiaz.
Bai eta garniturik ziren harmeriaz
ez baitzuten beldurric gillotinatziatz.

*Pedro-Bendarez'eta Stephano-Diaz/ Chefa nauciac ciren briganten carguiatz./ Bai eta gar-
nituric Ciren harmeriaz/ Ez baiçuten beldurric guillotinatziatz.*

8

Hamazazpi neskaxa konsomitu hurren,
 zonbat sofritu duten ez daiteke erran.
 Hemezortzigarrena bizirik ganberan,
 kontrizioniarene eiteko maneran.

Hama-çaspi Neskatça konçomitu hurren/ Combat çofritu duten ez daiteke erran/ Hemezortci garrena biciric gamberan/ Contricioniarene eiteco maneran.

9

Haur gaixuak oihuka aita eta ama
 bai eta gomendatzen gure Jainko jaunak.
 Martierren gorphutzaz uros du arima,
 orai gozatzen dute zerurik gorena.

Haur gaichuac oihuka Aita eta Ama/ Bai eta gomendatcen gure Yainco-Yaunac/ Martierren gorphutçac uros du Arima/ Orai goçatcen dute Ceruric-Gorena.

10

Pedro Bendarez zuten esposatzalia,
 siñifikatzen zuen aphezen ordia.
 Krima handia da hori jujatia,
 guziek har dezagun hortan etsenplia.

Pedro-Bendarez çuten esposatçalia/ Signifikatcen çuen apbecen ordia/ Crima handia da hori juyatia/ Guçiec har deçagun hortan exemplia.

11

Pedro Bendarez eta Stefano Diaz,
 hiltzerat kondenatu dira justiciaz.
 San Modina hirian gillotinatiaz,
 zortzigarren baitziren beren konpainiaz.

Pedro-Bendarezeta Stephano-Diaz/ Hiltcerat condenatu dira yusticiaz/ San-Modina birian guillotinatiaz/ Cortci-garren baitciren beren compainiaz.

12

Zortzi gillotinatu hamalauetarik,
sekulako galerak lauek heietarik.
Nehon ez da agertu holako krimarik,
ez baitzuten phensatzen bazela lanjerrik.

*Çortçi guillotinatu hamalauetaric/ Sekulaco galerac lauec beyetaric/ Nehon ez da aguertu
holaco crimaric/ Ez baitçuten pbensatçen bazela lanyerric.*

13

Brigant azkenak, biak, presundegietan,
hogoi urtherendako kondenaturikan,
orai paga ditzazten penitentzietan,
egin dituzten krimak beren denboretan.

*Brigant askenac biacpresundeguetan./ Hogoy urtherendaco condenaturikan./ Orai paga-
diçastan penitentcietan/ Eguin ditusten Crimac beren demboretan.*

14

Kanta kantu berriak, dolorosgarriak,
hamalau krimenelen miserikordiak.
Ontsa gostarik hazi aitamen umiak
briganten eskuetan galdurik biziak.

*Canta Cantu berriac doloros garriac/ Hamalaiü Crimenelen misericordiac/ Ontça gostaric
haci Aitamen umiac/ Briganten eskuetan galduric biciac.*

15

Jainko jauna, jeuts zaite lurraren gainera,
akzione krudelen justifikatzera.
Aingueruak ondotik odeier behera,
andere martierren arimen bidera.

*Yainco-Yaiüna yeuts çaitte lurraren gainera/ Accione crudelen yustificatçera/ Aingueruac
ondotic odeyer behera/ Andere martierren arimen bidera.*

4. BIGARREN PLAMAREN TESTUA

Bigarren plama, gorago esan dugunez, frantsesezkoa da. Letra larri edo handietan *Cour d'Assises de San-Modina/ Iles Philippines eta Rapt de 18 jeunes filles* dakar. Ondoren hona aldatuko dugun testua

–On nous écrit de Bazas (Gironde) les lignes suivantes:

“Une correspondance de San-Modina (Îles Philippines), nous apporte le compte-rendu d'un procès criminel qui vient de se dénouer par huit condamnations à mort devant la Cour de San-Modina.

“Depuis trois ans, un grand nombre de jeunes filles disparaissaient subitement et, malgré toutes les recherches, on ne pouvait mettre la main sur leurs ravisseurs ni découvrir la retraite des victimes. La consternation était grande dans le pays, les familles offraient les plus grandes récompenses, on ne trouvait trace, aucun indice.

“Il y a six mois, José Pazzol tomba accidentellement dans une fosse, où il découvrit une porte qui le conduisit dans, un véritable repaire de brigands. Il put s'échapper sans être aperçu, et peu après, la police prévenue s'empara de toute la troupe.

Quatorze brigands furent arrêtés et on découvrait les cadavres de dix-sept jeunes filles qui étaient mortes après avoir subi les derniers outrages. Une dix-huitième eut la chance d'être sauvée au moment où elle allait devenir la femme de Pedro Bendarez. Après chaque enlèvement Pedro faisait bénir par Stéphano Diaz son union avec la jeune fille, et quand il avait abusé de gré ou de force de sa victime, il la remettait à son chapelain avec ordre de la faire tuer. Stéphano Diaz l'épousait à son tour et la librait aux autres brigands qui la tuaient après avoir assouvi leurs passions.

“Pedro Bendarez, Stéphano Diaz et six autres brigands furent condamnés à mort; deux aux travaux forcés à perpétuité et les autres à vingt ans de la même peine.”


COUR D'ASSISES

DE

SAN-MODINA

(Iles Philippines)

BRIGANTEN



COUR D'ASSISES

DE

SAN-MODINA

(Iles Philippines)

YAUREGUIA

Cantu Berriac Hamalau Briganten Eta Hama-Caspi

ASSASSINAMENDUEN GAINIAN EMANAC

AIRIA : *Nahi gabe ainhitz da mundian guerthacoen*

1
Huna cantu berriac aire çaharian
Declaratœcen hasten niz, Heskual herrian
San-Modina deitœcen den hiri ederrian
Hamalau criminenel suyeten gainian.

2
Izazos bertçaldian San-Modin hiria
Philippineco isla da icendalia
Brigant banda handi bat hantœcen aguerria
Oihan baten erdian çuten yaureguia.

3
Yatuaœ orai nahi dut mundia argaitu
Crima nahi dueñaœ ongui çonpœnitit.
Hama-Caspi Neskatcha dira destruitu
Hemeçortci garrena baita concertatu.

4
Hirur urtez faltatu Ahndere gastiœ
Jose-Pozzolec ditu hatœman guciœ
Tratamendu crudelœac errecebitœac
Cœr misericordilœac galduric biciœac !

5
Jose-Pozzolec çuen kurayœ handia
Oihanaœren erdian brigant yaureguia
Hartan hatœman dute bici Anderia
Berte çomateœ çuten han galdu bicia.

8
Hama caspi Neskatcha çonçomitu hurran
Combat çofritu dutœn ez daitœce erran
Hemeçortci garrena çbiciric çambaran
Çontricioniarene eitœco maneran.

9
Haür gaichuac oihuka Alta eta Ama
Bai eta gomendaœen gure Yainco-Yaunac
Martierren çorputçœc uros du Arima
Oral goaçaten dute Çeruric-Gorena

10
Pedro-Bendarez çuten esposatçalia
Signifikatœen çuen apheœen ordia
Crima handia da hori yuyatia
Gucitœc har deçagun hortan exemplia.

11
Pedro-Bendarezeta Stephano-Diaz
Biltçerat çondenatu dira yusticiœac
San-Modina hirian guillotinatçiac
Çortci-garren baitçiren beren çompainiaz.

12
Çortci guillotinatœ hamalœuetaric
Sœkulœco galœerac laueœ heyetaric
Nehœn ez da agueritu holœco crimaric
Ez baitçuten phençatœcen bacela lançerrie

13
Brigant askenœac biœpresundegulœtan
Hogoy urtherendœco çondenaturikœn
Oral pagadiçkastœn penitœncietœn
Eguli ditusten Crimœc beren demboretœn.

COUR D'ASSISES DES BOUCHES-DU-RHONE
(Aix-en-Provence)

MARSEILLAN

Içan den assassinamendu baten gainian

CANTU BERRIAC

AIRIA : Cantacera niaçu aleguera gabe

I

Cantacerat niaçu berri triste baten
Oroc ençunen dute suyeta nolacen
Holaco crimarikan ez dugu ikhusten
Cerua eta lurra baiçuec harritcen

II

Francian içan dira laido itzuziac
Crimaren arabera dira yuyatiac
Berac aguertu ditu oh fesperentac
Pietate gabeco amaren umiac

III

Marseilla deitzen duten hiri ederrian
Andero gaste batcen eskontças abian
Amodioa çuen barna bihotcian
Amac ez ametitcen yaun haren hartecian

IV

Amari galdain dute eskontceco botça
Maleruski eman du errepostu hotça
Fite eçarri dute martier hil hotça
Ganibetian trebe baitçuten bihotça

V

Ama bere alabas assassinatic
Ez duelacotz eman permissioneric
Alaba haci kalu larderiatuoric
Ezçayon guerthaturen segur holacoric

VI

Senhar emaste gafac ciren aleguera
Prestatu cirenian amaren hilteera
Libratuco cirela guero eskontcera
Ordian çabaldicen gafçtuençandera

IX

Ama haren gorputça laçi pharte eguina
Lehen ganit colpia bihotcian barna
Çombat crudela çuen oh! asken orena!
Yainco-Yauna har çaçu çuc haren arima

X

Marseillaco andera esçondu nahia
Horra nunden Vitalis guillotinatia
Amari eguiteco cer accionia
Martier hil onduan çuc laurdengatia!

XI

Marseillaco hirian guerthatu suyeta
Crima handiagoric ez daikeguertha
Heriotce lazgarri crudelena baita
Eskondu nahi çuten oh! ama hil eta

XII

Horra bi criminelac eta heyen obrac
Harritu tu ilazoz bai eta lehorrac
Ez çitusten hobiac ondoco demborac
Yauna guillotinatu alabac galeric

XIII

Maria Boyer cira segur malorosa
Galdu duçu arima, çure erreçussa
Ceruco Yaincoari eguloçu adressa
Horren barkhamendutan citçan mortifica

XIV

Bi belhañ buluciez herrestan bidian
Çiben eta çasotu çucien artian

COMPLAINTE SUR LES RAPT DE 18 JEUNES FILLES

Air de: Béranger à l'Académie

Tous les journaux des Îles Philippines
Font le recit que d'ignobles brigands,
Qui habitaient d'un vieux château les ruines,
Ont accompli plusieurs crimes sanglants;
Ont enlevé dix-huit jeunes filles,
Dont les parents navrés versaient des pleurs;
Elles étaient belles, douces, gentilles,
On les aimaient, elles charmaient les coeurs (Bis.)

Ils massacraient d'innocentes victimes,
Dans les recoins d'un sombre souterrain;
Un prêtre infame encourageant leurs crimes,
Il bénissait leurs criminels desseins,
Ils ne vivaient que de vols, de pillage,
Ils répandaient à flots le sang humain,
Ils commettaient d'effroyables carnages,
Après le viol donnaient la mort soudain. (Bis)

Quand la justice arrête les coupables
Dans un repaire où logeaient les brigands,
On voit lutter ces hommes misérables
Contre la foule et de nombreux agents,
Un grand combat effroyable s'engage,
Des coups de feu retentissent soudain;
Ils veulent fuir, on barre le passage,
On les saisit les armes à la main. (Bis)

Les voilà tous sur le banc des assises,
Leurs noirs forfaits, des juges son connus;
Pour les gardder, les mesures son prises,
Chargés de fer, ils vont être entendus,
Ces fiers bandits que tout le monde accuse.
Sont d'un cynisme ignoble, révoltant,
Ils ont recours au mensonge, a la ruse,
Pour échapper au sort qui les attend. (Bis)

Le sang versé demande et cire vengeance,
 Et le jury rend un verdict de mort;
 Ils ont souillé, immolé l'innocence,
 Ces criminels méritent bien leur sort;
 Sur cette terre ils n'ont plus d'espérance,
 Ils sont tombés dans le mains du bourreau,
 Tous on subi la terrible sentence
 En expirant sur l'infâme échafaud. (Bis)

Gorago esan dugun bezala, orrialdearen amaieran ohar hau dator: *Parisen laü urtbeko haür bat içan da berrogoï eta hirur pusketan eçarriric. Courier bat assasinaturic. Emanen dugu beyen cantiac, cembeit egunen burian, Ascainecoac ere.*

5. HIRUGARREN ORRIALDEAREN TRANSKRIPZIOA

Plama honetan ere euskarazko testua dugu. Letra handian tipografia desberdinetako letretan, modu txukun eta argian, zahaztasuan hauek datoz: *Cour d'Assises des Bouches-du-Dhone/(Aix-en-Provence)/ Marseillan/ Içan den assassinamendu baten gainian/Cantu berriac.*

Zehaztasun hauen guztien ondoren kantuaren doinua ere bator. Doinua *aire* edo *abaire* hitzaren bidez adierazten da. Kantaren buru-buruan, beraz, *Airia: Cantatcera niaçu aleguera gabe* irakurtzen da. Ohargarria da, bestalde, euskaraz ditugun bertsorik ezagunenen aire berean eginak daudela bertsoak, Hazparneko Plumaieneko galerianoren bertsoen aire berean.

Oraingo atal honetan ere bertso-saila transkribatzeko aurreko irizpide berak erabiliko ditugu. Oraingo bertso-sail hau, aurrekoa bezala, hamabost ahapaldikoa da. Hamabost ahapaldiak zenbaki erromatarrez transkribatuko ditugu, jatorrizkoan ere halaxe daudelako.

I

Kantatzerat niazu berri triste baten,
orok entzunen dute suieta nola zen.
Holako krimarikan ez dugu ikhusten,
zerua eta lurra batzuek harritzen.

*Cantatcerat niaçu berri triste baten/ Oroc entçunen dute suyeta nolacen/ Holaco crimari-
kan ez dugu ikhusten/ Cerua eta lurra batçuec harritzen*

II

Frantzian izan dira laido itsusiak,
krimaren arabera dira jujatiak.
Berak agertu ditu oh! esperentzi[a]k
pietate gabeko amaren umiak.

*Francian içan dira laido itzuziac/ Crimaren arabera dira yuyatiac/ Berac aguertu ditu
oh! esperentic/ Pietate gabeco amaren umiac*

III

Marseilla deitzen duten hiri ederrian,
andere gazte bat zen eskontzaz abian.
Amodioa zuen barna bihotzian,
amac ez ametitzen jaun haren hartzian.

*Marseilla deitzen duten hiri ederrian/ Andere gaste batcen eskontças abian/ Amodioa çuen
barna bihotcian/ Amac ez ametitcen jaun haren hartcian*

IV

Amari galdein dute ezkontzeko botza,
maleruski eman du errepostu hotza.
Fite ezarri dute martier hil hotza
ganibetian trebe baitzuten bihotza.

*Amari galdein dute eskontceco botça/ Maleruski eman du errepostu hotça/ Fite eçarri dute
martier hil bolça/ Ganibetian trebe baitçuten bihotça*

V

Ama bere alabaz asasinaturik
ez duelakotz eman permisionerik.
Al[h]aba hazi balu larderiaturik,
ez zaion guerthaturen segur holakorik.

Ama bere alabas assassinatoric/ Ez duelacotz eman permissioneric/ Alaba hazi balu larderiaturic/ Ezçayon guerthaturen segur holacoric

VI

Senhar-emaztegaiac ziren alegera,
prestatu zirenian amaren hiltzera.
Libratuko zirela gero ezkontzera,
ordian zabaldu zen gaixtuen bandera.

Senhar emaste gaiac ciren aleguera/ Prestatu cirenian amaren hiltzera/ Libratuco cirela guero eskontzera/ Ordian çabalducen gaixtuenbandera

VII

Heiagora marraskaz ama maite hura:
–Othoi, ene alaba, emadan denbora!
Kontrizionia bederen ez dinat kobera,
ez baitu permetitu haren egitera.

Heyagora marraskas ama maite hura/ Othoi ene alaba emadan denbora/ Contricionia bederen ez dinat kobera/ Ez baitu permetitu haren eguitera

VIII

Hil eta onduan gero laurdengatu dute,
itsasbazter batian ihortzi baitute,
guarda gomendant batek hatzeman du fite,
jandarmeriak laster arrestatu duzte.

Hil eta onduan guero laurdengatu dute/ Itzaz baster batian ibortci baitute/ Gouarda gomendant batek hatcemandu fite/ Yandarmeriac laster arrestatu duste

IX

Ama haren gorputza lau pharte egina,
lehen ganit colpia bihotzian barna.
Zombat krudela zuen oh! azken orena!
Jainko jauna, har zazu zuk haren arima

*Ama haren gorputza lau pharte egina/ Lehen ganit colpia bihotzian barna/ Zombat
krudela zuen oh! asken orena/ Jainco-Yauna har zazu zuk haren arima*

X

Marseillako andere ezkondu nahia,
horra nun den Vitalis gillotinatia;
amari egiteko zer akzionia,
martier hil onduan zuk laurdengatia!

*Marseillaco andere escondu nahia/ Horra nunden Vitalis guillotinatia/ Amari eguiteco cer
accionia/ Martier hil onduan zuk laurdengatia!*

XI

Marseillako hirian guerthatu suieta,
krima handiagorik ez daiteke gertha.
Heriotze lazgarri krudelena baita,
ezkondu nahi zuten oh! ama hil eta.

*Marseillaco birian guerthatu suieta/ Crima handiagoric ez daiteke guertha/ Heriotce laz-
garri crudelena baita/ Eskondu nahi zuten oh! ama hil eta*

XII

Horra bi kriminelak eta heien obrak,
harritu tu itsaso bai eta leihorak.
Ez zituzten hobiak ondoko denborak
jauna gillotinatu, alabak galerak.

*Horra bi criminelac eta heyen obrac/ Harritu tu itzazo bai eta leihorac/ Ez zituzten hobiac
ondoco demborac/ Yauna guillotinatu alabak galerac*

XIII

Maria Boyer zira segur malorosa,
galdu duzu arima, zure errezusa.
Zeruko Jainkoari egiozu adresa,
horren barkhamendutan zitzan mortifika.

Maria Boyer cira segur malorosa/ Galdu duçu arima, çure erreçussa/ Ceruco Yaincoari eguiçu adressa/ Horren barkhamendutan çiçan mortifika

XIV

Bi belhaun buluziez herrestan bidian,
oihan eta desertu guzien artian,
ibili behar zira, tristia, mundian,
nahi baduzu pharterik zeruko lorian.

Bi belbaün buluciez herrestan bidian/ Oiban eta desertu guzien artian/ Ibilibehar cira tristia mundian/ Nabibaduçu pharteric ceruco lorian

XV

Kantu hok eman ditut guziek kantatzeko,
eta partikulazki neska gaztendako.
Suieta baita ongi etsenplu hartzeko,
aita-amak ohora luzaz bizitzeko.

Cantu hoc eman ditut guciéc cantatceco/ Eta paticulaski neska gasten daco/ Suieta baita ongui exemplu hartceco/ Aita-Amac ohora luçats bicitceco.

6. LAUGARREN ORRIALDEAREN TRANSKRIPZIOA

Laugarren orrialde hau dena frantsesez idatzirik dago. Hirugarren orrialdean azaltzen den heriotza beraren deskripzioa dago xehero. Lehen narrazioaren buruan letra larriz *Affaire Leon Vitalis & Maria Boyer*. Bigarren zehaztasuna: *Une femme coupée en morceaux à Marseille*. Hona beraz, testua.

Un crime horrible a été découvert à Marseille, au bord de la mer, dans l'anse de la Madrague-de-la-Ville, à 40 mètres environ de la batterie du cap Pinède et à 200 mètres du restaurant Miguet. Voici les horribles détails de cette affaire, que nous avons pu nous procurer à la hâte.

Un employé des douanes, le sous-brigadier Gouin, faisait une tournée de surveillance a l'endroit que nous venons d'indiquer, lorsque, longeant le remblai bordant le rivage, il aperçut au bas du talus, des vêtements en lambeaux. Il crut un instant que ces hardes avaient été jetées là par un chiffonnier; mais, poussé bientôt par la curiosité ou par le sentiment du devoir, il songea à se rendre plus exactement compte de l'amas mystérieux d'effets qu'il avait devant lui.

Sa première constatation lui fit éprouver un mouvement d'horreur assez naturel du reste. En effet, en soulevant le paquet retenu sous un amas de pierres, il mit à découvert une jambe sanguinolente, affreuse à voir. Le sous-brigadier Gouin n'eut plus aucun doute: il se trouvait en présence d'un crime monstrueux, et son premier soin fut de faire un appel désespéré à ses camarades, qui s'empressèrent de se rendre auprès de lui. Les pierres qui couvraient les vêtements furent immédiatement enlevées, et alors commença le plus cruel examen auquel il ait été donné d'assister. Le paquet était solidement ficelé.

En l'ouvrant, il s'en échappa le cadavre d'une femme coupée en cinq morceaux. Dans un jupon se trouvaient le tronc et la tête horriblement mutilés.

Dans un châle noir du paquet, on a retrouvé enveloppés une jambe et un bras; dans un caraco, c'est l'autre bras, et enfin, dans un jupon, c'est encore une autre jambe.

Après les constatations faites, les membres épars du corps ont été déposés dans un fourgon des pompes funèbres et transportés à la Morgue où la foule est devenue, en peu d'instants, considérable.

C'est alors qu'une femme, les yeux en larmes, se précipita sur le cadavre en s'écriant: "C'est la femme Boyer! C'est Madame! La personne qui poussait ces cris était la femme de ménage de la victime

Mais les auteurs de ce crime, où étaient-ils, quels étaient-ils? La femme Boyer vivait avec sa fille Maria Boyer, âgée de 17 ans, et un jeune homme qu'elle disait être son neveu, Léon Vitalis, né à Montpellier, se préparant à l'école de Médecine. Ce jeune homme, petit parent de la femme Boyer, ne cherchait en réalité, qu'à devenir l'époux de la jeune Maria.

L'attitude de Vitalis et de sa fiancée, avait, paraît-il, attiré l'attention des gens de la maison. La femme Boyer avait disparu depuis ce jour-là, et, loin de se préoccuper de cette absence, les deux jeunes gens disaient aux uns qu'elle était malade, aux autres qu'elle était

partie pour Montpellier. Ils faisaient même des démarches pour vendre le fonds du magasin d'épicerie qu'exploitait la veuve Boyer, et avaient donné congé pour quelques jours au garçon de magasin.

Tous ces faits, ayant été révélés a M. Dietz, commissaire central, ce magistrat n'hésita pas á ordonner l'arrestation de Vitalis et de la fille Boyer.

L'affaire est venue aux assises des Bouches-du-Rhône, aux audiences des 2, 3, 4 et 5 juillet.

LA CONDAMNATION

Cette terrible affaire a occupé quatre journées d'audiences, enfin, le 5 juillet, le jury a rendu un verdict affirmatif sur toutes les questions avec admission de circonstances atténuantes en faveur de Maria Boyer.

La lecture provoque une émotion profonde. Un silence de mort régne dans l'auditoire.

M. le président ordonne de faire entrer les accusés et invite le greffier à leur donner lecture du verdict qui a eu lieu immédiatement.

Maria baisse la tête et pleure.—Vitalis reste impassible, les yeux baissés.

La Cour se retire pour délibérer. Elle rentre après dix minutes de délibération avec un arrêt condamnat Vitalis à la peine de mort et ordonnant que l'exécution aura lieu sur une des places publiques de Marseille.

Maria Boyer est condamnée aux travaux forcés á perpétuité.

COMPLAINTÉ

Air: Maudite neige, tomberas-tu toujours?

1
 Voyez l'histoire sans pareille
 Je vais en faire le récit.
 Dans la ville de Marseille,
 Un crime affreux fut commis,
 L'auteur du fait épouvantable
 Une fille dénaturée.
 Pendant la nuit deux misérables
 Ont commis un grand forfait. (bis)

2

Une veuve avec sa fille,
Tenaient deux petits magasins.
Chez eux tout était tranquille.
L'on ne se doutait de rien,
Un jeune homme de connaissance
Chez elles était assidûment.
Dés lors le drame commence,
La veuve a péri tristement.

3

C'est ainsi qu'ils projetèrent
Pour accomplir ce noir dessein,
D'assassiner la pauvre mère,
Pour posséder tout son bien,
D'un coutelas on la frappe,
Tombe baigné dans son sang
Et sa fille ouvre la trappe,
Qui reçoit le corps sanglant.

4

Pendant que Vitalis assomme
La pauvre femme terrassée,
Sa fille, Maria qu'on nomme,
Faisait du bruit pour étouffer
Les cris de sa pauvre mère,
Frappée d'un terrible couteau
Se défend quoique par terre,
Elle arracha l'arme au bourreau.

5

Quoique criblée de blessures
Elle résista à l'assassin,
Vitalis à l'âme dure
Maria il appelle soudain:
Fais-mois passer, dit-il en rage,
Une arme pour terminer,
Donne le couteau à fromage,
Que la tigresse lui fit passer.

6

Le lendemain de leur crime
Pour cacher ce grand forfait,
Sur un charriot leur victime
Se mirent à la transporter;

Se dirigeant vers la barrière
Personne ne se méfiait
Que ces êtres sanguinaires,
Le cadavre allaient jeter.

7

Près de la mer sous des pierres
Cachent des débris humains,
Mais n'ayant pas de lumière
Des lambeaux se voyent enfin;
Un sous-brigadier de douane
Passant soulève ces débris,
Decouvre le corps de la femme,
Ensanglanté tout meurtri.

8

Or, la justice se transporte,
Guidée par l'homme douanier;
A la morgue sitôt l'on porte,
Le corps de l'infortunée;
Une femme sa voisine,
Qu'à la morgue était allée
Elle reconnut la victime,
S'écrie: c'est la veuve Boyer.

9

La police au domicile
Se rend avec précaution
De Vitalis, de la fille
Ils firent l'arrestation,
Ne pouvant plus nier leur crime,
Devant le juge d'instruction
Ils avouent le drame intime,
On les conduit en prison.

10

La fille fut condamnée
A vie aux travaux forcés.
De Vitalis, voilà le sort
Il est condamné a mort,
Restons humains sur la terre
Suivons bien les bons conseils
Honorons nos père et mère
Ainsi nous irons au ciel.

Jabier Kaltzargorta